

BALIO PROPOSAMENA

Nekazaritza Lehen Sektorean duen presentzia handia dela eta, hainbat pestizida eta fertilizante erabiltzen dira produkzioa areagotzeko. Ingurumenerako kaltegarriak dira hauek eta gizakiak sortzen duen kutsaduraren ehuneko handi bat osatzen dute. Bestalde, hainbat jaki alferrik galtzen dira eta konposterako ez dira aprobetxatzen.

Beraz, honi aurre egiteko proposatu dugu nekazaritza sektorean balore ekologikoak sustatzen dituen elkartea. Gure enpresan, metodo berritzaile baten bidez, hiri handietako biztanleen janarien hondakinak biltzen ditugu edukiontzi espezializatueta eta horiek makina batean fertilizante naturalean bihurtzen ditugu.

Gure proiektua besteengandik desberdinduko da honako ezaugarriengatik:

Alde batetik, berritasuna eskainiko dugu. Gure proposamena Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ezarri ez den proiektu bat da eta fertilizante ekologikoen erabilera ez da ohikoa zenbait lekutan. Gainera, hondakin organikoak ez dira oraindik fertilizante bihurtu makineria baliatuz eta metodo ez-efizienteak erabili ohi dira.

Bestetik, elkarteak eskuragarritasuna eskaintzen du. Komunitate lokal batean kokatuta egongo da eta hiritarrentzako gertu dauden merkatu eta supermerkatuetan salduko ditugu produktuak.